

Koloreak eta hizkera moldeak

Edna St. Vincent Millayren poemak euskaratu ditu Ana Moralesek • Christopher Okigbo itzuli du Karmen Irizarrek, eta, hartara, lehendabiziko poeta afrikarra da Munduko Poesia Kaierak bilduman

Gorka Arrese Donostia

«Bakoitzaren bereizgarriak eta kolorea./ bere hizkera moldea.../ horiek alda ditzake, denbora askorekin, zumarrak; eta/ tamariak halaber. Baina gosez hiltzen, baina hotzez badago akabatzen...»; Edna St. Vincent Millay idazlearen *Ez nazio batengatik* poemako pasarte bat da, Ana Moralesek itzulia. «Danborretik jan dut/ zinbaletik edan dut/ zure ezkontza ganberan/ sartu naiz eta hara!/ neu naiz nire sorterriratzearen lekuko bakar»; Christopher Okigbo idazlearen *Distantziak* poemaren amaiera da, Karmen Irizar Segurok euskaratua. Munduko Poesia Kaierak bildumako 37. eta 38. zenbakiak aurkeztu zituen atzo Susa literatura argitaletxeak, Beñat Sarasola idazlearen edizioekin eta hitzaurreekin.


Christopher Okigbo poeta afrikar handienetako bat da. Nigeriar jaio zen, Ojoton, 1932an; eta gazterik hil zen, 1967an, borrokan, Nigeriaren eta Biafraren arteko gerran. Chinua Achebe eta Wole Soyinka idazleekin elkarlanean, Nigeriako literaturaren bultzatzaile nagusia izan zen. Koloreen eta formen eztanda modukoak dira Okigboren poemak; eta haien parajeetan landaredia (izpilikua, irokoa, sandaloa...) eta animaliak (lehoiak, elefanteak, arranoak...) bizi dira gizakiekin, poetaren lagunekin eta senitartekoekin.

Poema modernista eta konplexuak dira asko, eta collage teknika darabil maiz. Irakurleak irudi festa baten erdian topatuko du bere burua. «Okigboren poesiarren ezaugarri nabarmenetako bat da, modu tradizionalen txertatuta agertzen dela aberastasun modernista», idatzi du Sarasolak liburuaren hitzaurrean. «Erreferentzia klasikoak ugariak dira, kultura klasikoari dagozkionak, erlijiozkoak eta mitologikoak, baina orobat ageri dira ahozko tradizio literarioaren zantzuak».

Edna St. Vincent Millay (1892-1950) ingelesezko poesia lirikoan gailenen artean da. Pulitzer poesia saria eskuratu zuen 31 urte



Edna St. Vincent Millay estatubatuarra eta Christopher Okigbo nigeriarra, biak ingelesak literaturan. BERRIA



betetzerako; sari hori lortu zuen lehenengo emakumea izan zen, eta AEBetako poetarik entzutesuenetakoa bilakatu zen. «Ni poetikoaren sentimendu barnekoak agertzen dira Millayren poesian, edertasunez adieraziak. Haren esku eta teknika poetiko paregabearen bidez ontzen ditu gai klasikoak, hala nola amodioa, heriotza, haurtzaroa», Sarasolaren arabera.

Jazz aroko poeta

AEBetako 1920ko hamarkadako literatur giroa bizi izan zuen Millayk. «Jazz Aroko poeta bat da», esan zuen Moralesek.

Hemezortzi poema libururen egilea izan zen, «goi mailara eramanean zuen sonetoa, gazteen belaualdiarentzat erreferentzia izan zen, rock izar baten parekoa». Argitaratu eta berehala ahitzen ziren Millayren liburuak. «Aktore formazioa ere bazuen, errezitatzaile aparta zen, ahotsa oso ondo proiektatzen zekien, eta irratan aditzen zitzaion».

Hurrengo kaierak, Alda Merini eta Saint-John Perse

+ Udazkenean beste bi liburu berrirekin emendatuko da Munduko Poesia Kaierak bilduma, eta, horrenbestez, 40 zenbakira iritsiko da, 2014ko martxoan abiatu zenez gero.

Alda Merini (1931-2009) poeta italiarra itzultzen dihardu Aiora Enparantzak. Eugenio Montale, Salvatore Quasimodo eta Giorgio Manganelliren adiskidea izan zen Merini. Obra oso zabala argitaratu zuen.

Saint-John Perse (1887-1975) idazle frantsesaren poemak euskaratzen ari da Santi Leone. Literaturako Nobel saria jaso zuen 1960an. Andre Gide eta Paul Valéryren adiskidea izan zen. AEBetara alde egin zuen Vichyko gobernuaren garaian, eta han landu zituen bere liburu ezagunenetako hiru: *Exil*, *Pluies* eta *Neiges*.

Garai hartako beste zenbait poetaren aldean molde klasikoak erabili zituen Millayk, nagusiki forma neurtu eta errimatuak baliatuta. Hala ere modernoa eta apurtzailea izanik edukiz, kontrastea da haren poesiarren ezaugarri behinenetako bat. Poema ezagunenetan «lotsaren gabezia, independentzia, askatasun pertsonala eta sexuala aldarrikatu zituen Millayk».

Kezka soziali ez zien bizkar eman: feminismoa, atetik; auzi politikoak, bestetik. Hiltzera zigortutako Sacco eta Vanzetti anarkisten auziaz poemak idatzi zituen, baita AEBetako nazionalismoaren aurka, edo faxismoaren kontra ere Espainiako 36ko gerra garaian eta Bigarren Mundu Gerran. «Kritikak zigortu egin zuen horregatik, eta hala hasi zen Millayren sonaren gainbehera».

Morales itzultzaileak adierazi zuen ahalegin berezia egin duela errimaren eta neurriaren efektua ekartzeko euskarazko piezatarara, «kudentzia edo musikaltasun

kutsu bat, horretarako poetak baino silaba gehiago behar izan ditudan arren».

Tradizioa eta modernismoa

Hiru poema liburu argitaratu zituen Okigbok, eta gerran hil eta lau urte geroago plazaratu zuten laugarrena. «Argia da haren idazkera batzuetan, lausoa bestetan», aitortu zuen Irizarrek. «Zenbait kontzeptu guretzat arrotzak direnez, eta adiera biko hitzez jolasak ere egiten dituenek, sortzera joan behar izan dut euskaratzean. Okigbo itzultzeko mundu tradizionalari buruzko jakintza behar da». Baina, aldi berean, munduko literaturaren eta kulturen berri zabala zuen idazleak; «Yeats, Picasso eta beste askori erreferentzia egiten die poemetan», esan zuen Irizarrek. «Keinu batzuez jabetu naiz, baina beste asko oharkabean igaroko ziren». Okigbok begiak zabalik zituen mundura, eta tradizioaren eta modernitatearen artean bat egiteko dohaina erakutsi zuen.